



Fabrika sutan atzo eguerdian. Ke beltz izugarria atera zen sutan egon zen denboran.

Su hartu zuen atzo Zikuñagako Foresur Celulosas fabrikak

■ Arratsaldeko 13:45ak inguruan piztu zen sua, transformadore batetik ■ Suhiltzaileek 15:30ak alderako zeukaten kontrolpean sua ■ Ura botatzeko argia kendu behar izan zuten eta Hernani argi gabe egon zen 2 orduz.

ATZO eguerdian su hartu zuen Foresur Celulosas fabrikako zati batek, dirudienez transformadore batetik. Bonberoak berehala ziren han, baina, tentsio altuko argindar torre bat zegoen fabrika teilatu gainean, eta argia moz-

tu zuten arte fabrika barrutik ura boteaz eutsi behar izan zioten suari, kanpotik tentsio altuko torrea bustitzea arriskutsua zelako. Behin argindarra kenduta, sua arratsaldeko 15:30ak ingururako nahiko kontrolatuta zeukaten suhil-

tzaileek, oraindik erabat itzalita ez bazegoen ere. Foresur Celulosas fabrikak papera egiten du eta arduradun eta langileen kezka zen makina nagusia erre ote zen, baina, badirudi ezetz. Langileak garaiz konturatu ziren eta

denak onik irten ziren.

Hernani argirik gabe

Fabrikara zijoan argindar linea moztuta, Hernaniko hainbat tokitan argia moztu zuten 14:30etatik, 16:30ak alderarte. □

Orain artekoan giro onean eta jende gehiegi gabe joan dira San Joanak eta gaur azken eguna

■ Astez herriko jendea ibili da gehiena eta jende pilaketa haundiegirik ez da izan ■ Gaur Txistulari Bandak eta Betiola-Elizatz Txarangak emango diote festei bukaera, Hernaniko bandera eta ikurrina jaitsita.

AURTENGO San Joanak sartu dira azken egunean, ofizialki bost egun, baina, praktikan zazpi eguneko festaren ondoren. Aurtengo jendea badabil, baina, kabitzeke moduan dago herria. Adin eta gusto guztietako jendearentzako festak dira San Joanak eta ekitaldi guztietan dabil jendea.

Dantza giroa

Aurtengo San Joanetan dantza asko egiten ari da kalean. Berbenatan eta txarangaren atzetik ibili da asko eta mariatxiek asteazkenean jendea erruz bildu zuten Plazan, dantzarako kontzertua ez bazen ere. Dantzarako ohitura galtzen ari zela esan izan da, baina, badirudi pixkana-

ka berreskuratzen ari dela, urteko fetxa seinalatutan bada ere.

Bandera jaitsiera eta festak bukatu

Gaur gauerdian bukatuko dira San Joanak, Udaletxeko balkoitik Hernaniko bandera eta ikurrina kenduta. Festen hasiera bezalaxe Txistulari

Bandak eta Betiola-Elizatz txarangak emango diote bukaera festei. Egunean zehar izango da non gozatua: goizean axeri dantza, txu-txu tren umeentzat, baserritarren egunaren barruan herri kirolak Tilosetan, San Joan konpartsa herrian barrena, dantzaldia Gaubela taldearekin, Elektrotuna taldea, txarangak... □

EGITARAUA

EKAINAK 27, OSTIRALA

07:00 Diana, *Hernani* Musika Eskola Publiko dultzaineroekin.

07:30 Sokamuturra

09:00 Axeri Dantza

11:00 Haurrentzako parkea kiroldegi ondoan eta txu-txu trenaren irteera Urbietako kalean.

11:00 Beti egarriak txarangaren irteera.

12:00 Haurrentzako zezanak Urumea ikastola ondoan.

12:00 Urumea ikastolako 26garren marrazki lehiaketako sari banaketa Biterin.

12:00 Herri kirolak Tilosetan

18:30 San Joan Konpartsa.

19:00 Laugarren tenorea kale antzerkia Trapu Zaharrak taldearekin, Tilosetan.

23:00 Dantzaldia Gaubela taldearekin.

23:00 Aritz Sound System Molotoffeko txosnan.

00:00 Jaiei amaiera: Betiola-Elizatz eta Txistulari Bandak ikurrinak jasoko dituzte. Ondoren, Incansables txarangarekin kalejira.

00:30 Musika kalejira Elektrotuna taldearekin.

Garai bateko Biteriko klaseak irudikatuko ditu gaur Konpartsak

SAN Joan konpartsak Biteriko garai bateko klaseak eta hango gorabeherak irudikatuko ditu gaur. Irteera 18:30etan da Plazatik eta kale buelta egin ondoren, Gudarien Plazan egingo dute antzerkia. Zuzendaria Ruth Martin hernaniar antzerkilaria da eta antzezle, garai hura bizi izan zuen jendea aterako da. □

ETXERAT ELKARTEA

Euskal presoak Euskal Herriratzea eskatzeko enkartelada gaur

ETXERAT elkarteak enkartelada deitu du gaurko, *Denon artean euskal presoak Euskal Herrira* lemarekin. Etxerat elkarteak dei egin die herritar guztiei enkarteladan parte hartzera. Gaur, 20:00etan Gudarien plazan. □

Eguzki perfumeria



Ondo pasa Sanjoanak. Gora San

Kale Nagusia 45, Tel.: 943 551333

Eguzki perfumeria

Gure dendan, behar dezuna daukagu.

- Perfumeria
- Opariak
- Edertze gela
- Solariuma
- Ileapaindegia

GOXOKIAK ROMBER okindegia



Gora San

Karmelo Labaka 6 - behea

Tel.: 943 331 123

SAN JOAN JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

SEAT ETA OPEL ZERBITZU OFIZIALAK



URUMEA Autoak - Auto HERNANI

Kotxe berri eta aukerakoen salmenta
Tailer mekanikoa eta elektrizitatea

Finantziak
Karrozeria

Urumea Autoak
Akarregi auzoa 25, 943 332274

Auto Hernani
Akarregi auzoa 25, 943 552546



Ezkerrean lehendakari eta senideak oroigarriekin eta txapelketako sarituak. Eskubian luntxa.

Lehendakariei omenaldia, sari banaketa eta luntxa izan ziren atzo Jubilatu Etxean

JUBILATU Etxean San Joanetako festa egin zuten atzo. Lehendakari izandakoei eta senitartekoei omenaldia egin zitzaizen hasieran. Orain arteko lehendakariak izan dira: Hermenegildo Garcia, Rikardo Ganzarain, Victor Ocio, Vicente Barrios, Jose Zapi- rain, Benito Muñoa, Jesus Gome- z, Luis Fernandez, Goyo

Irazusta eta Florian Martin.

Hamar sari

Aurtengo txapelketetako sariak ere banatu zituzten. Sarituak: Bolan irabazle, Bernardo Ana- bitarte eta bigarren, Ramon Ormaetxea. Igelean, txapeldun, Saturnino Pastor eta bigarren, Lesmes Gonzalez. Tokan, irabazle Jose Lopez eta biga-

rreren, Francisco Garcia. Botean, irabazle Francisco Garcia eta bigarren, Lesmes Gonzalez. Bolan, txapelketa ofizialean, Jose Antonio Arroyok irabazi du eta bigarren Jose Mari Etxebeste gelditu da.

Sari banaketa ondoren luntxa egin zuten jubilatuek aurtenera eta lepo bete ziren jangelak. □



Alejandro Usabiaga Hernaniko Txapeldun bolan. Hernaniko bola txapelketa jokatu da hiru tiralditara. Lehenengoa, Ereñotzun egin zen; bigarrena, Jubilatu etxean; eta hirugarrena, Floridako Benta Berrin. Txapeldun, CDHko Alejandro Usabiaga gelditu da, 99 brilarekin; bigarren, Elur Txoriko Migel Burugain, 98 brilarekin; hirugarren, Elur Txoriko Joxe Ugalde, 87 brilarekin; eta lau eta bosgarren, Ur Miako Ibon Miner eta Elur Txoriko Joxe Mari Zelarain, hauek ere 87 brilarekin. San Joan saria Migel Burugainek irabazi zuen, Benta Berrin. □

www.kronika.net

HERNANIKO
kronika

Interneten helbide berrian

HAADA
TABERNA

GORA KARDABERAZ, 5
SAN JOAN! HERNANI

ETXE OMENAK, S.A.

GARAJE ITXIAK

Herriko festak ondo pasa ditzazuela opa dizuegu heranien guztioi.

GORA SAN JOAN

☎ 943 33.22.37

ARIZMENDI
jatetxea

Bazkariak
Afariak eta
Hamaiketakoak

Jai zoriontsuak
ta EMAN
MOTEL!!

Antziola auzoa, 86
☎ 660 976 278
20120 HERNANI

■ HITZ BITAN

✓ PELOTA

Profesionaletako bi partidu gaur. Azken urteotako San Joan jaietan ohi bezala, profesional mailako pelota partiduak antolatu ditu Hernaniko Pelota Elkartek. Aurtengorako Besagain enpresako 4 bikoterekin antolatu da jaialdia. Lehenengo partiduan, Barberito VI-Elolak, herritarra den Oiaga eta Gabarri IIaren kontra jokatu dute. Bigarren partiduan, berriz, izen haundiak ageri dira: herriko beste profesionala den Esnalek, Errandonearekin osatuko du bikotea eta kontrario Alustiza-Arretxe izango dituzte. Partiduak 18:00etatik aurrera dira kiroldegiko frontoian.

Kronika eskupeleta ligaren finalak larunbatean.

Hirugarren aldiz, Kronika eskupeleta liga jokatu da herriko pelotari federatu gabeen artean. Txapelketa azaroan hasi zen 13 bikoterekin, eta denek denek kontra jokatu, sei lehene- nek bigarren fasean neurtu dituzte indarrak. Bigarren fase honetako 4 lehengoek larunbatean jokatu dituzte azken partiduak. Bi bikoterik onenak Garmendia-Zabala eta Xabier-Gorka izan dira, eta hauek jokatu dute finala. Hirugarren eta laugarren posturako berriz, Zelaia-Urdangarin eta Tutu-Iñakik jokatu dute. Partiduak larunbatean, 18:00etatik aurrera Tilosetan.



Iazko finala, Tilosetan.

✓ ANGEL OLARAN HERNANIN

Ethiopia 2003 proiekturako errifak. Hernaniko bi margolan egokitu zaizkio 072 zenbakia Ethiopia 2003 proiekturako dirua ateratzeko antolatutako errifan. Agertuko ez balitz margolan bat 172 zenbakia duenak jasoko du eta bestea 972 zenbakia duenak.

✓ GIMNASIA ERRITMIKOA

Tejedor Espainiako txapelketan. Jaione Tejedor hernaniarrak Espainiako jubenil mailako txapelketa jokatu du asteburuan Cordoban. Txapelketa indibiduala da eta 4 aparatuetan bildutako puntuak hartuko dira kontuan sailkapenerako. Gaur eta bihar sailkapen fasea jokatu da, eta 10 onenek igandean neurtuko dute elkar. Jaione Tejedor jubenil mailako A taldean sartu dute, komunitate autonomo bakoitzeko bi onenen kontra konpetitzeko. Tejedorrek lehenbiziko aldiz konpetituko du buruz buru Espainiakoan, nahiz eta taldekakoan lehenago atera izan den. □

ZERBITZUAK	
☎ TELEFONOAK	☎ FARMAZIAK
► Taxiak: 943 550093	► Egunez: Bulnes
► Udaltzaingoa: 943 333288	Florida auzoa
► DYA: 943 464622	☎ 943 557738
► Autobusak: 943 556662	► Gaez: Bulnes
► Anbulatorioa: 943 006666	Florida auzoa
► Jokalari anonimoak: 943 331103	☎ 943 557738

IZARRE JATETXEA

San Joan jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Pol. Lastaola
-Tel.: 943 55 0640-
HERNANI (Gipuzkoa)

HERNANI
HIZKUNTZAK
Gure Ingelesetxea

UDAKO IKASTARO
ERDI-TRINKOAK HERNANIN,
IRAKASLE NATIBOekin

AURREMATRIKULA ZABALIK
(2003-04 ikasturtekoa ere bai)

Deitu Alan / Joe
☎ 943 33 11 08
KALE NAGUSIA 41, 1

KixKal
Taberna

naqusia 15
Egunero pintxo aukera
ederra. Asteburuetan
pintxo beroak ere bai.